

# Telmo Munduate Goikoetxea

A maila • 1 saria

Telmo Munduate nauzue, San Benito Ikastolan dabilen ikasle ataundarra. Ametsak hitz, hitzak amets errealitatea erreparatu eta gure iruditeria honen alderik bortitz nahiz ederrenak hitz laudorioan islatzen saiatzen naiz.

Oraingoan gaia urte honetako nire bizipenen ingurukoa izan da, duela ia urtebete honetan lau paretan artean giltzapetuta egon den edonoren istorioa. Hitz hauen artean zure atsekabea identifikatuko duzu, egun amaigabe haietako tristura oroitu edo amona berriz ikusteko aukera izan zenueneko irrifarre hura gogoratuko duzu beharbada. Baina edozerren gainetik itxaropenaren kutxa da honako istorio hau, haizeak garamatza-eta, haizeak elkartzen gaituenera arte.



## HAIZEAK ELKARTZEN GAITUENERA ARTE

*Nire etxea defendatuko dut,  
nireak defendatuko ditut.*

### AITA eta KOMUNeko PAPER BARRIKADA

Ilunaberrako azken txanpan eta arrapalada batean sartutako paper solteak eta portatilaz gain, martxoko bigarren ostiral honetan kaosa ekarri dut laneko maletinean. Errealitate zikoitz baten izateak markatu dit gaurko gidoia, eta etorkizuna, nork daki? Orainaldia dut protagonista, eta berarekin lagun, harridura eta inpotentziaren gatibu den momentu hau soilik. Fikzioaren eta errealitatearen paralelismoa elkartzen den unea da atariko atea zabaltzen dudana hau. Goizean garbitzaileak usain gozoz lurrundu duen olatuak barneratu nau indarrez, olagarro handi bat igogailuko zulotik besarkatzen ariko balitzaidan moduan. Espetxeratze inposatu baten biktima errugabea naizela argudiatzen diot neure buruari. Martxoko egun hau izango dut gogoan, gainetik kendu ezinezko patuaren hasiera inozente gisa. Hurrunean dut lankideekin hartu dudana eguerdiko kañaren apar zuria, baina ez olatua. Zuri-beltzeko pelikula mutua da honakoa. Baina Chaplinek ezin du bere bibotea erakutsi. Ezkutuan du oraingoan. Eta madarikatua komuneko paper mendi hau hemen utzi duena. Arranopola! Igogailuko ateari bertatik bertara erakutsi dizkiot hortzak.

Baina amets honen erdian bada beste ispilurik. Istorio hau ez nukeen inoiz lehengo pertsona eta singularrean moldatzerik izango. Ez eta *"Bazen behin"*eko hasiera edota *"Hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera ..."* amaiera magikodun kontakizun moduan kanporatzerik. Badira beste protagonista batzuk. Guztia bene-benetakoa da hasieratik bukaerara. Hainbat kontzientzien erreflexu. Hitz laudorio hauetan lau bizipen jorratuko dira. Lau istorio. Lau sentimendu. Madarikazio bakar bat.

Eta ni zurrunbilo honen erdian aurkitzen naizen beste bat baiño ez naiz izango. Agian *zelatari* dei nazakezue. Edo X Jauna. Ez du axola. Zuk honako datu objetiboa hauek soilik izan kontuan: 42o58'41''N 2o10'53''O, gure etxea.

#### BILOBA MAITTEA

Lagunak agurtu eta ikastola denbora tarte baterako atzean uzteak eragin zidan irribarre infinitu hura iada bukatuta, eta monotoniaren erritmora kondenaturik, ordenagailuaren atzean ezkutatzen naiz gau eta egun. Bera da nire konpainia bakarra. Bera eta nire *Chopin Amonaren* piano doinua. Iñoiz pentsatuko ez nukeen moduan piano akordeen laudorioan galtzen naiz. Bere armonia perfektuan. Baina herenegun gaueko sirena hotsak isilarazi dute etengabeko azken piano melodia. Geroztik ez dut entzun eta zorteko amuletoa galdu izan banu bezala sentitzen naiz, zer egin ez dakidala, unibertsoan zerraldo. Horregatik isiltasunak sortzen didan buruko mina aitzaki, etxekoei nire tristura erakustea ekidin dut.

Nire egonezina amatatzeko, bozgorailuen indarrez lagun musikaz gainezkatu dut gela. Nire diskoteka partikularra. Espazioan bidaian. Burrunba hotsak estaltzen du kanpoko isiltasun gogoangarria. Eta halakoan, nire *arimarekiko birkonexio* sakona etetera azaldu zait ama, gorri-gorri, sutan. Aldameneko bizilaguna etorri zaiola, iskanbilaz kexu. Eta bere zakurraren zaunkek barrabilak puztutzen dizkidatenean? Orduan zer? Doala popatik hartzera.

Harrigarria da, pareta sendo batek zer nolako banaketa ahula sortzen duen gudan. Hamar ate. Hamar bizitza. Hamar ezker eskubi. Eta ia ezagutu ere ez. Bizitza osoa elkarren alboan eta igogailuko agur zaporegabeak soilik afektu moduan.

Mesedez, has dadila Amona bere hatzak astintzen hemen bertan erotuko ez banaiz. Pianoaren misteriopean, hatz luze eta igartuak dantzan. Akorde bakoitzaren sakontasunean bere gaztaroa behin eta berriz irudikatu dut, bere bizitza paraleloak birritan amestu; piano jole ospetsu bezala makina bat alditan imajinatzen dut. Ezpain gorriak zigilu eta Royal Albert Hall atarian bere izena argizatuta. Bitxia emanaldia, sarrerak agortuta eta ni entzule bakarra. Aitonaren omenetan.

Pasiloan amak utzi zituen komuneko paper erroilo solteak pilota moduan hartuta amonaren gelako atea jo dut. Nahigabe. Ez dakit. Bost segundoko isiltasun luzearen hostean atea ireki da hemeki-hemeki eta ilepaindegiko orrazkera dotore hartatik urrun amonaren irudi berria, goibeldua, erreparatu dut. Ezpain gorriak falta dira, eta horrekin masailean haren muxuak utzi ohi didan orban lausotua. Hurrengorako gordeko zuen..

Bere irrifarre motelak logelara sartzeko gonbitea egin, honekin aitona betirako agurtu genuenetik amona ez dela betikoa egiaztatu dut. Baina nik ez dut gogoko heriotzaz hitz egitea. Inork ez dit doluminak ematen irakatsi. Betiko moduan besarkada bat eman diot. Amonak goxoki erantzun dit beste muxu bat emanez. Baina oraingoan ere ez dago orbanik. Zuri beltzeko muxuak ez du zigilu koloreztatua inprimatu.

## AMONA. ITXAROPENAREN EZPAIN GORRIAK

Gaur ez zara nire alboan etzan. Zure ordeztatu izate beltz bat hauteman dut. Zure begiak zituen. Zure ezpainak. Zure ilea. Baina ez zinen zu.

Irakurlerik ez duen karta hau zuretzat idatzi dut. Entzulerik ez duen piano mutu hau zuretzat jotzen ari naizen moduan. Zuretzat bakarrik. Zugar pentasatuz nire eskuak erreparatzen ditut, zure muxu goxoak jasoz armonia begiztetan sakontzen ziren esku zaharkitu hauek. Debussyren Claro de Lunarekin hasten naiz, nota bati beste batek jarraikiz, iñurriak bestea erakartzen duen moduan. Elkarlanean. Partitura zahar hau erreparatuz malko bat erori zait. Malko soil bat. Eta erortzen den heinean nire erreflexua ikusi dut bertan. Ezpain gorriak iraganean geratu dira.

Astebete da zure kabuz atetik irten zinela. Egunkari eta telebistako iskanbilaren erdian lehen ezkutatu hotsak entzun nituen eta orduz gero etxeko denok sasi-mediku bihurtu ginen. Eta egun batzuk geroago zure izana erraustu soiletan galdu omen da. Hala deitu digute. Ezereza erraustak. Hil kanparririk gabeko gure agurra soilik izan duzu, irrifar faltsurik gabe. Hara non, hurrengo eguneko egunkari esnatu berria gainbegiratzearan aipamen tristea zurea: "Herria, +1". Eta gehi bi, gehi hiru eta gehi lau. Zenbaki arrunt bakoitzaren atzean ahots gabeko deiadarra. Bataren atzean zu.

Baina bat-batean piano aurreko nire burutazio beltzak uxatu dituen soinu bat entzun dut. Amona zahar honen erreskatera datorren marinela. Nire *maittea*, bihotz hil honen sendagile. Komuneko papera eskuanduelan irribegirageratuta, isilik. Besterik gabe maitasunez ito nauen besarkadak heldu nau. Hirurok parke zaharreko bankuan pasatzen genituen mementuek indarrez hartu naute. Askeak ginenekoek.

## Eta AMA ORAIN ERE HASERRE

Goizean garaiz eskailera bat behera, bi gora. Eskailerak banaka behera eta binaka gora. Arratsaldean sareko yoga klasea. Bi kandela eta "Amazoniako Soinuak" dioten musika kaxa zahar batetik berpiztu dudana *casettean*. Bertan planto, sosegu eskuraezinaren aurkikuntza. Erlaxatzea uste baino zailagoa dela konturatu naiz. Aitzitik ibiltzeko oinetakoak jantzi eta komunitateko *Everest* igotzen dihardun dut ia ordubete. Lehenengo pisutik bosgarrenera. Eta iluntzean, afaldu aurretik garajeko fitness areto klandestinoan pasira. Barruko amorrua atera nahi eta ezin.

Monotoniak itotzen nau. Goizeko irratiko berriekin esnatu eta gauean albisteekin lokartu. Garbitu eta txukundu beharrak armairuak biharamunik izango ez bagenu bezala egin nituen lehen astean. Denbora aprobetsatu nahi, hurrengo egun, aste eta hilabeteetan zetorkidana aurreikusi gabe. Aitarena pasa da eta egoerak familian erro sakonak utzi ditu. Amak bere logelatik atera gabe daramaki astebete. Semea belarriko erraldoi handi horiek jantzita ezkutatzen saiatzeaz gain ezer gutxi. Eta senarra berriz, lana estakuru gisa ez dut ia ikusi ere egiten. Esandakoa, egunerokotasunean itota.

*Iluntzeko zortziak*. Urruneko hots burrunba entzuten da iada. Balkoiko ortentsiak erori punttuan badaude ere nere oholza apaintzen dute eta txalo zaparradara sumatzen naiz. Nire buruari txalo egiten diodala iruditzen zait, eta gainontzekoak niri txaloka ari direla. Amona logelan geratu da, semea bere koban eta senarra paper artean.

Teilatupeko hamar palkoak osorik bete dira gaurkoan.

#### LAU ARIMA. ISTORIO BAT

Egun berri bat esnatu zaigu gaur etxean. Laurok gara narratzaile. Laurok protagonista. Mundutik banatzen gaituen atea gurutzatuko dugu gaur. Zerumuga lausotura heltzen da gure begirada. Utopiarantz alfer pausoak honakoak. Baina guretzat, dudarik gabe, aurrera pausoak.

Pixkanaka gu guztion irudia argitzen doa. Iada ez da txuri-beltzeko film goibel hura. Komuneko paper piloa ere bukatzeaz dagoela ziurtatu dugu komuneko armairuan. Datu garrantzitsua gure istorio honetan.

Zuhaitzen berdea indartzeaz gain, ezpainak gorritzen doaz eta akordeak elkar uztartzen berriro.

Kanpoko haizeak gidatzen gaituen honetan irrifar polit bat irudikatu duzu amona! Baita zuk ere *maittea*!

Laurok dugu irrifarre bera. Eta lastima, zuek, irakurleok, ezingo duzuela zuzean erreparatu.

Haizeak garamatza, haizeak elkartzen gaituenera arte.